h) Lan-sariak, eraikinaren Ikuskapen Teknikoa eta Egikaritze Proiektua idazteagatik eta obren zuzendaritza teknikoari dagozkionak. Etxebizitzak monitorizatzeko kostuen aurrekontuaren fotokopia.

i) Memoria, eraikinean egingo diren jarduketak zehatz deskribatuta (oinarrizko proiektuaren maila).

j) Egingo diren jarduketa guztien oinarrizko proiektuaren aurrekontua, obrak egin ondoren eraikinarentzako aurreikusitako Eraginkortasun Energetikoaren ziurtagiria barne.

f) Fotocopia de las certificaciones de que la Comunidad está al corriente del cumplimiento de las obligaciones tributarias y con la Seguridad Social.

g) Informe de la Inspección Técnica y Certificado de Eficiencia Energética del edificio en su estado actual.

h) Honorarios de redacción de la Inspección Técnica del edificio, del proyecto de Ejecución y de la dirección facultativa de las obras. Asimismo, fotocopia del presupuesto de los costes de monitorización de las viviendas.

i) Memoria con descripción detallada de las actuaciones a realizar en el edificio (nivel proyecto básico).

j) Presupuesto del Proyecto Básico del conjunto de las actuaciones a realizar, incluyendo Certificado de Eficiencia Energética del edificio previsto tras la realización de las obras proyectadas.

**13. Artikulua. Akatsak zuzentzea eta aurre-ebaluazioa.**

Espedientea bideratu duen organoari dagokio egiaztatzea, eskaerak deialdi honetan eskatutako baldintza eta betebehar guztiak bete egiten dituela eta honen aurreko atalean aipatu den dokumentazioa ekarri egin dela; organo horrek agindu dezake zuzenketa egitea DLOren 23.5 artikuluaren arabera. Hamar eguneko epe luzaezin gehienezkoan eskatutako dokumentazioa ekarri ez, edo akatsak zuzentzeko agindua eman eta akatsak zuzentzen ez dituztenei, eskabidean atzera egindakotzat hartuko dira, ebazpena aldez aurretik hartu ondoren.

**Artículo 13. Subsanación de defectos y pre-evaluación.**

La comprobación de que la solicitud reúne los requisitos exigidos en esta convocatoria y de que se aporta la documentación a que se refiere el párrafo anterior competerá al órgano instructor que podrá requerir la subsanación de conformidad con el artículo 23.5 LGS. A quienes no aportaran la documentación requerida o no subsanaran los defectos después de requeridos en el plazo máximo e improrrogable de diez días, se les tendrá por desistidos de su solicitud, previa resolución expresa dictada al efecto.

**14. Artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta Diru-laguntzen zenbatekoak.**

Diruz lagunduko diren egitekoak hauek izango dira:

a) Auditoretza energia eta Eraikinaren Azterketa Teknikoa idaztea (EAT)

Esparru horretako *eraikinen auditoria energeia eta EATak egiteko kostuare*n % 60 lagunduko da diruz.

b) Etxebizitzak monitorizatzeko eta horren jarraipena egiteko

**Artículo 14. Gastos subvencionables e importe de las subvenciones.**

Las cuantías a subvencionar serán las siguientes:

a) Para la redacción del Informe Técnico del Edificio (ITE) y de la auditoría energética.

Se subvencionará el 60% del coste de *la elaboración de las auditorias energéticas y de las ITEs de los edificios del ámbito*.

b) Para la monitorización de las viviendas y su seguimiento



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523520161411043460
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

Egindako ekintzen eta obren eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko, diru-laguntza ematen den unetik bertatik (obrak egiten hasi aurretik) monitorizatu egin behar da etxebizitzen % 10, eta obrak amaitu ondoren ere, beste urte bitan horrela jarraitu. Sistemak ustiatzen eta martxan dauden bitartean, datuak neurtzeko behar diren ekipoak Eusko Jaurlaritzako Eraikuntza Kalitatearen Kontrolerako Laboratorioaren Termika Arloko zerbitzu teknikoek adierazitakoak izango dira. Ekipoak, behin instalatuta, ekipatuta egon behar dira datu-irakurketa Eraikuntzaren Kalitatearen Kontrolerako laborategira bidaltzeko, hark datuok tratatu eta ustia ditzan.

Etxebizitza horiek monitorizatzeko egin behar den instalazioak eta horren jarraipenak izango duen kostuaren % 100 lagunduko da diruz

c) Proiektuak idazteko eta obra-zuzendaritzarako

Agiriak idazteko lan-sariek eta obra-zuzendaritzaren lan-sariek izango duten kostuaren % 60 lagunduko da diruz, zergak barne. Diru-laguntza horren maximoa Jabe Erkidegoko elementuen kopurua bider 1.000 euro izango da, oinarri hauetako 5.artikuluan zehaztutako moduan.

Proiektua Kapitulutan eta Partidetan egituratu behar da, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzako zerbitzu teknikoek emango duten ereduari jarraikiz.

d) Obrak egiteko

Igogailua edo/eta arrapala jartzea: Igogailuak edo/eta arrapalak jartzeko exekuzio- lanen kontrataren aurrekontuaren % 60 (zergak barne), itzuli beharrik ez daukana. Jabe Erkidegoko bakoitzeko, gehienez ere, 72.000 euro.

Con el fin de poder comprobar la eficacia de las acciones y obras adoptadas, se deberá monitorizar el 10% de las viviendas de cada edificio objeto de subvención, (antes de la ejecución de las obras) y durante dos años tras la conclusión de las obras. Los equipos necesarios para la medición de los datos durante la explotación y servicio de los sistemas, serán los que a tal efecto indiquen los servicios técnicos del Área de Térmica del Laboratorio de Control de calidad del Gobierno Vasco. Los equipos, una vez instalados, deberán estar equipados para remitir la lectura de los datos medidos al laboratorio de Control de Calidad de la Edificación para su tratamiento y explotación.

Se subvencionará el 100% del coste de la instalación y el seguimiento de la monitorización de las viviendas indicadas.

c) Para la redacción de proyectos y dirección de obra.

Se concederá una ayuda del 60% del coste (impuestos incluidos) de los honorarios de redacción de los documentos y dirección de obra y tendrá como límite máximo el importe correspondiente de multiplicar 1.000 euros por el número total de elementos de la Comunidad de Propietarios/as, según se determina en el *art 5* de las presentes bases.

El proyecto deberá estar estructurado en Capítulos y Partidas, siguiendo el modelo que al efecto se facilitará por parte de los servicios técnicos de la Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana del Gobierno Vasco.

e) Para la ejecución de las obras:

Instalación de Ascensor y/o rampa: Se concederá una subvención a fondo perdido del 60% del presupuesto de contrata de las obras de ejecución (impuestos incluidos) para la instalación de ascensores y/o ejecución de rampas, con una cuantía máxima de 72.000 euros por cada Comunidad de Propietarios/as.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 1352352016141104346O
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

<u>Eraikinaren inguratzaile termikoaren eta haren instalazioen portaera energetikoa hobetzea</u>: kontrataren aurrekontuaren %__60 (zergak barne) lagunduko da diruz. Jabe Erkidegoko elementu bakoitzeko, gehienez ere, 7.500 euro, oinarri hauetako 5.artikuluan zehazten denaren arabera. Hona hemen banaketa:

- Eraikinaren Kalifikazio Energetikoa letra batean hobetzen duten jarduketetan —indarraldiko eraginkortasun energetikoko egiaztatze-prozeduraren arabera, CO2 igorpenean neurtuta— kontrataren aurrekontuaren %60 (zergak barne) lagunduko da diruz. Jabe Erkidegoko elementu bakoitzeko, gehienez ere, 4.000 euro, oinarri hauetako 5.artikuluan zehazten denaren arabera.

- Eraikinaren Kalifikazio Energetikoa letra bitan hobetzen duten jarduketen kasuan —indarraldiko eraginkortasun energetikoko egiaztatze-prozeduraren arabera, CO2 igorpenean neurtuta— kontrataren aurrekontuaren %60 (zergak barne) lagunduko da diruz. Jabe Erkidegoko elementu bakoitzeko, gehienez ere, 6.000 euro, oinarri hauetako 5.artikuluan zehazten denaren arabera.

- Aurreko esku-hartze bi horietako batek bere baitan energia primarioaren kontsumoa murrizteko jarduketak egiten baditu, kontrataren aurrekontuaren %60 (zergak barne) lagunduko da diruz, eta goian aipatutako gehieneko zenbateko horri Jabe Erkidegoko elementu bakoitzeko 1.500 euro gehituko zaizkio, oinarri hauetako 5.artikuluan zehazten denaren arabera.

Hauek dira diruz lagundutako jarduketak:

- Etxeko ur beroa sortzeko sistema bat jarri eguzki-panel termikoen bidez (EUB).

- Berokuntza-sistema eta etxeko ur bero zentralizatua (EUB) jarri biomasa- galdararekin edo energia berriztagarriko beste sistema batzuekin, etxe bakoitzak kontsumitzen duena kontrolatzeko banaketa-sistemarekin.

**15. Artikulua. Bateragarritasuna beste diru-**

<u>Mejora del comportamiento energético de la envolvente térmica del edificio y sus instalaciones:</u> se subvencionará el 60% del presupuesto de contrata (impuestos incluidos) con un máximo de 7.500 euros/ número total de elementos de la C.P. según determina en el *art 5* de las presentes bases, con el siguiente desglose:

- En el caso de aquellas actuaciones que permitan mejorar en una letra la Calificación Energética del edificio medida en emisiones de CO2 según el procedimiento de certificación de eficiencia energética vigente, se subvencionará el 60 % del presupuesto de contrata (impuestos incluidos) con un máximo de 4.000 euros/ número total de elementos de la C.P. según determina en el art 5 de las presentes bases.

- En el caso de actuaciones que permitan mejorar en dos letras la Calificación Energética del edificio medida en emisiones de CO2 según el procedimiento de certificación de eficiencia energética vigente, se subvencionará el 60 % del presupuesto de contrata (impuestos incluidos) con un máximo de 6.000 euros/número total de elementos de la C.P. según determina en el art 5 de las presentes bases.

- Cuando alguna de las dos intervenciones anteriores incluya actuaciones de reducción del consumo de **energía primaria se subvencionará el 60%** de su presupuesto de contrata (impuestos incluidos) incrementando el importe máximo arriba indicado, en 1.500 euros/número total de elementos de la C.P. según determina en el *art 5* de las presentes bases. Estas son las actuaciones incluidas:

- La instalación de un sistema de producción de agua caliente sanitaria (ACS) mediante paneles solares térmicos.

- La instalación de un sistema de calefacción y ACS centralizado con caldera de biomasa, u otros sistemas de energías renovables, que incluyan distribución para control de consumos individualizados.

**Artículo 15. Compatibilidad con otras**



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523520161411043460
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**laguntza batzuekin.**

Oinarri hauetan xedatzen diren laguntzak bateragarriak izango dira helburuan edo xedean bat datozen beste administrazio publiko edo pribatu batzuenarekin, jasotako laguntzen zenbateko osoa ez baldin bada diruz laguntzen ahal den aurrekontuaren zenbatekoa baino handiagoa.

Diru-laguntza hauek bateragarriak izango dira Udalak igogailuak jartzeko eta fatxadak berriztatzeko ematen dituen diru-laguntzekin, eta Aramotz auzoko eraikinak birgaitzeko Udalak berak etxejabe bakoitzarentzako egin duen deialdiko diru-laguntzekin.

Bateragarriak dira baita eskubide titular bakoitzari legozkiokeen laguntza hauekin:

- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako kontseilariak emandako 2006ko abenduaren 29ko Aginduak (2007ko urtarrilaren 25eko EHAA) eraikinak eta etxebizitzak birgaitzeko partikularrei ematen dizkien laguntzak edo agindu hura ordezten duen araudiak dakartzanak, gehienez ere, jarduketen kostu guztia osatu arte.
- Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutuak (IDAE) dauden eraikinen birgaitze energetikoko jarduketak egiteko laguntza-programaren deialdiko oinarrietan dauden diru-laguntzak, gehienez ere, eraginkortasun energetikoko jarduketen kostua osatu arte.
- I+G+B programetatik edo Europako programa batzuetatik eskura daitezkeen beste laguntza batzuk

Ez da bateragarria izango Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak jabe-erkidegoen alde eman ditzakeen laguntzekin.

**16. Artikulua. Ordainketak.**

Diru-laguntza orokorren ordainketa prozedura hauen arabera egingo da:

a) Lehenengo ordainketa, diru-laguntzaren zenbatekoaren %15, ordainketa-eskaera aurkeztu ostean egingo da. Eskaera egiteko horretarako eredua hartuko da oinarri. Horrekin

**subvenciones.**

Las ayudas previstas en la presente convocatoria serán compatibles con las otorgadas por otras administraciones públicas o por entidades públicas o privadas que coincidan en su objeto, siempre que el importe total de las ayudas recibidas no supere el importe del presupuesto subvencionable.

En especial serán compatibles con las subvenciones que el Ayuntamiento destina a las obras de instalación de ascensores y la restauración de fachada, y con las ayudas convocadas por el Ayuntamiento a propietarios/as individuales para la rehabilitación de edificios en el Barrio de Aramotz.

Serán también compatibles con las siguientes ayudas que pudieran corresponder a cada persona titular de derechos de forma individual:

- Ayudas a particulares para la rehabilitación de edificios y viviendas contenidas en la Orden de 29 de diciembre de 2006, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras para rehabilitación de vivienda, publicado en el B.O.P.V. de 25 de enero de 2007 o la normativa que la sustituya; hasta completar, como máximo la totalidad del costo de las actuaciones.
- Ayudas contenidas en las bases reguladoras de la convocatoria del programa de ayudas, del Instituto para la Diversificación y el Ahorro de la Energía, para actuaciones de rehabilitación energética de edificios existentes, hasta completar, como máximo, el costo de las actuaciones de eficiencia energética.
- Otras ayudas que puedan obtenerse de programas de I+D+i, o de programas europeos.

No será compatible con las que pueda otorgar el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco a favor de Comunidades de personas Propietarias.

**Artículo 16. Forma de abono.**

El pago de las subvenciones se realizará de acuerdo al siguiente procedimiento:

a) Un primer pago del 15% del importe de la subvención se abonará tras la presentación de la solicitud de pago, según modelo disponible al efecto, a la que se acompañará la siguiente



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523520161411043460
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

batera ondoko dokumentu hauek ekarri behar dira:

- EAT egiteagatik, auditoretza energia eta oinarrizko proiektua eta obra-egikaritzakoa idazteagatik izandako lan-sarien zenbatekora iritsiko diren fakturak. Ez da ordainduko justifikatutako zenbatekotik gorako zenbatekorik.

- Frogagiria, Jabetza Erregistroan higiezineko etxebizitza guztien jabariaren mugatze-xedatzailearen erregistro-idazpenarena. (frogagiri guztiak aurkeztu ezean, 18. atalak ezarritako eran jokatuko da).

b) Bigarren ordainketa, diru-laguntzaren zenbatekoaren % 20, ordainketa-eskaera aurkeztu ondoren egingo da, eta eskaera aurkezteko eredu bat egongo da. Eskabidearekin batera, ondoko dokumentu hauek ekarri behar dira:

- Obrak egiteko ardura duen edo duten enpresarekin egindako kontratuaren edo kontratuen fotokopia, diru-laguntzaren xede diren obra guztiak egingo direla bermatzen dutenak.

- Obra-hasieraren Aktaren kopia, Jabe Erkidegoko lehendakariak, enpresa eraikitzailearen ordezkariak eta obraren zuzendaritza teknikoak edo fakultatiboak sinatutakoa. Aldez aurretik obretarako udal-lizentzia lortu beharko da.

c) Hirugarren ordainketa, zatikatua eta diru-laguntzaren zenbatekoaren % 55era artekoa izango da, egindako obren hileko ziurtagirien araberakoa. Eskaera aurkeztu ostean ordainduko da, eta eskaera horretarako eskuragarri dagoen ereduaren arabera eta dokumentazio honekin aurkeztu beharko da:

- Egindako obraren hileko faktura. Zuzendaritza fakultatiboak igorritako obra ziurtagiriarekin aurkeztuko dira fakturak.

d) Gainontzeko zenbatekoa justifikazio-kontua egiaztatu eta onartu ostean ordainduko da, jarraian datorren artikuluan adieraziko den eran.

Ez da ordainduko justifikatutako zenbatekotik gorako zenbatekorik, epe bakoitzean

documentación:

- Facturas que cubran el importe de los honorarios de la elaboración de la ITE, auditoría energética, de la redacción de los "Proyectos básico y de ejecución de la obra". En ningún caso se abonarán cantidades superiores a las justificadas.

- Justificante de la inscripción en el Registro de la Propiedad del asiento registral de limitación dispositiva del dominio de todas las viviendas del inmueble. (en caso de no presentarse todos los justificantes se procederá de acuerdo a lo establecido en el art. 18 de las presentes bases)

b) Un segundo pago del 20% del importe de la subvención se abonará tras la presentación de solicitud, según modelo disponible al efecto, que se acompañará de la siguiente documentación:

- Fotocopia del contrato o contratos con la empresa o empresas responsables de la ejecución de la obra que garanticen la ejecución de la totalidad de las obras objeto de subvención.

- Copia del Acta de Inicio de Obra firmada por el/la presidente/a de la Comunidad de propietarios/as, el/la representante de la empresa constructora y la dirección facultativa. Previamente se deberá haber obtenido la licencia municipal de obras.

c) Un tercer pago fraccionado máximo hasta el 55% del importe de la subvención, según certificaciones mensuales de obras realizadas que se abonará tras la presentación de solicitud, según modelo disponible al efecto, que se acompañará de la siguiente documentación:

- Factura mensual sobre la obra ejecutada. Las facturas se acompañarán de la correspondiente certificación de obra expedida por la Dirección Facultativa.

d) El importe restante se abonará previa comprobación y aprobación de la cuenta justificativa, según se indica en el siguiente artículo.

En ningún caso se abonarán cantidades superiores a las justificadas, según fases.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523520161411043460
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**17. Artikulua. Pertsona onuradunek duten epea eta modua, diru-laguntza emateko helburua bete dutela justifikatzeko eta jasotako funtsak zertan erabili dituzten azaltzeko.**

Obra-lizentzia eman dela jakinarazi ondoren, urte 1ekoa izango da obrak egiteko gehieneko epea.

Onuradunek, diru-laguntza emateko helburua bete dutela justifikatzeko eta jasotako dirua zertan erabili duten justifikatzeko, hile biko epea dute aurreko paragrafo horretan adierazitako epemugatik zenbatuta; hala ere, epemuga horrek inondik inora ere ezingo du gainditu 2023ko azaroaren 30a. Aldatu egin daiteke, Eusko Jaurlaritzarekin dagoen akordioan aldaketaren bat balego, arinago gertatu den moduan.

Hala ere, laguntza eskatu dutenei egozterik ez dagoen arrazoiren bat dagoenean, obraren hasieran edo exekuzioan atzerapenen bat balego, ezarritako epemuga amaitu ondoren, epea luzatzeko eskaera egin dezakete.

Justifikatzeko modua justifikazio-kontu bidez egingo da. Agiri hauek ekarri behar dira:

- Justifikazio-kontuaren komunikazioa, horretarako eskuragarri dagoen eredua oinarri hartuta.
- Obra-amaierako ziurtagiria, obraren zuzendaritza teknikoak izenpetutakoa.
- Ziurtagiria, EATn identifikatutako patologiak eta kalteak zuzendu izanari buruzkoa.
- Amaitutako obraren Eraginkortasun Energetikoko ziurtagiria.
- Obra-egikaritzaren fakturak, aurretik aurkeztu ez direnak.
- Erkidegoaren lehendakari-kargua edo, hala bada kasua, komunitateko idazkaritza edo administrazioa ordezkatzen duenak emandako agiria; bertan jasoko da diru- laguntzaren onuradunak egindako ordainketen zenbatekoa, eta birgaitze-obra osoagatik azkenean ordaintzea dagokion kopurua.
- Egindako obren argazkiak.

**Artículo 17. Plazo y forma de justificación por parte de las personas beneficiarias del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos.**

El plazo máximo de ejecución de las obras será de 1 año contado a partir de la notificación de la concesión de la licencia de obras.

El plazo de justificación (por parte de las personas beneficiarias) del cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y de la aplicación de los fondos percibidos será de dos meses contados a partir del vencimiento de la fecha indicada en el párrafo anterior, sin que, en ningún caso pueda superar la fecha de 30 de noviembre de 2023.

Ello no obstante, cuando por causa justificada no imputable a las personas solicitantes de la ayuda se produjera un retraso en el inicio o en la ejecución de la obra, se podrá solicitar, previo vencimiento del plazo establecido, una ampliación del mismo.

La forma de justificación será mediante cuenta justificativa, debiendo presentarse la siguiente documentación:

- Comunicación de cuenta justificativa, según modelo disponible al efecto.
- Certificado de final de obra, suscrito por la Dirección facultativa de la obra.
- Certificado de subsanación de las patologías y daños identificados en la ITE.
- Certificado de Eficiencia Energética de la obra terminada.
- Facturas de ejecución de obra que no hayan sido ya presentadas con anterioridad.
- Documento expedido por la persona que ostente la Presidencia o, en su caso, la Secretaría o la -Administración de la Comunidad, en el que conste la cuantía de los pagos realizados por cada uno de los/las miembros de la Comunidad.
- Fotografías de las obras realizadas.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523520161411043460
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

- Beste erakunde batzuei diru-laguntzak eskatu bazaizkie, laguntza horiek eskatu izana eta/edo jaso izana ziurtatzen duen ziurtagiria, Jabetza Erkidegoko presidenteak edo komunitateko idazkariak edo administratzaileak egindakoa.

- En caso de haber solicitado subvenciones a otras instituciones, documento expedido por la persona que ostente la Presidencia o, en su caso, la Secretaría o la -Administración de la Comunidad que certifique otras subvenciones solicitadas y/o concedidas.

**18. Artikulua. Diru-laguntzen zenbatekoa itzultzea, ezarritako baldintzak ez betetzeagatik.**

Jabetza Erregistroan higiezineko etxebizitza baten edo etxebizitza batzuen jabariaren mugatze-xedatzailearen erregistro-idazpenaren frogagiriak ekarri ezean, emandako diru- laguntza murriztu egingo da, halako moldez non jabetza horizontaleko higiezin osoko banaketan etxebitza/lokal horiei esleitzen zaien partaidetza-kuotaren pareko portzentajea murriztuko zaien.

Diru-laguntzak emateko ezarrita zeuden baldintzetatik edozein DLOaren 37. artikuluak ezarritako moduan betetzeke uzteak.

Diru-laguntza kobratu ondoren, Administrazioko zerbitzuen aldetik egiaztapen bat edo finantza-kontrol bat egin eta egindako gastu guztiak edo gastuen zati bat ez dela ordaindu agerian geratuko balitz, hartzekodunen aldetik galdagarriak diren gastuak, dirua itzultzeko agindua emango da egokitasunaren printzipioa erabilita; hartara, ordaindu gabe geratu diren gastuen proportzio berean hartuko da itzulgarritzat emandako diru-laguntza.

**Artículo 18. Devolución del importe de las subvenciones en caso de posibles incumplimientos de las condiciones impuestas.**

La no aportación del justificante de la inscripción en el Registro de la Propiedad del asiento registral de limitación dispositiva del dominio de alguna o algunas de las viviendas/ locales del inmueble, supondrá la reducción de la ayuda concedida en un porcentaje equivalente a la cuota de participación atribuida a dichas viviendas/ locales en el total del inmueble en la división de propiedad horizontal.

El incumplimiento de alguna o algunas de las condiciones impuestas con motivo de la concesión de las subvenciones en los términos establecidos en el art. 37 LGS.

Si en la realización de una comprobación o control financiero por los servicios de la Administración se pusiera de manifiesto la falta de pago de todos o parte de los gastos realizados, después de cobrada la subvención, siendo exigibles por los respectivos acreedores, se exigirá el reintegro aplicando el principio de proporcionalidad, a cuyo efecto se considerará reintegrable la subvención en proporción a los gastos impagados.

**19. Artikulua. Administrazioko arau-hausteak eta zehapenak diru-laguntzen alorrean. Zehapen- edo zigor-prozedura.**

Gai honi dagokionez, 1. oinarrian adierazitako udal ordenantzan xedatutakoari jarraituko zaio.

**Artículo 19. Infracciones y sanciones administrativas en materia de subvenciones. Procedimiento sancionador.**

En esta materia se estará a lo dispuesto en la ordenanza municipal identificada en la base 1.

**20. Artikulua. Ebazpenak administrazio-bideari amaiera ematen dion adieraztea.**

Ebazpenak amaiera ematen dio administrazio-bideari; horren kontra, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hilabeteko epea dago Ebazpena eman zuen organoari zuzendutako berrazterketa-errekurtsoa sartzeko, edo, bestela, hile biko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa sar daiteke Bizkaiko Administrazioarekiko auzietako Epaitegian (Bilbon, Barroeta Aldamar kaleko 10. zenbakian).

**Artículo 20. Efectos jurídicos de la resolución de concesión.**

La Resolución pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra la misma recurso de reposición en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente a la recepción de la notificación de la resolución ante el órgano que dictó la Resolución o recurso contencioso administrativo en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bizkaia, sito en c/ Barroeta Aldamar, 10 de Bilbao.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523520161411043460
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

**21. Artikulua. Datu pertsonalen babesa.**

Diru-laguntza eskaera aurkeztean, eskaera egiten duen erakundeak deklaratzen du deialdian ezarritako baldintza guztiak bete egiten dituela eta oinarri hauek diotena goitik behera onartzen duela. Halaber, adierazten du baimena ematen duela eskaeran jasotako datu pertsonalak biltzeko. Horrez gain, onartzen du datu horiek tratamendu automatizatua izatea eta sartzea behar den baimena duten Durangoko Udalaren hainbat fitxategitan; eta baimena ematen du datu horiek udalaren gestioetarako bakarrik erabiltzeko. Datuak laga edo komunika dakizkieke beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei, Datu pertsonalak babesteko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatzen dituen kasuetan.

**Artículo 21. Protección de datos de carácter personal**

Con la presentación de la solicitud de subvención, la entidad solicitante declara que reúne todos los requisitos establecidos en la convocatoria y que acepta íntegramente estas bases. Así mismo, manifiesta que los Datos Personales contenidos en la instancia son recogidos bajo su consentimiento y que acepta que dichos datos sean objeto de tratamiento automatizado e incorporados a los diferentes ficheros debidamente autorizados del Ayuntamiento de Durango y Durango Eraikitzen, y que autoriza a que el uso de dichos datos se restrinja exclusivamente a la instrucción del procedimiento, pudiendo procederse a su cesión o comunicación a otras Administraciones Públicas o terceros en los supuestos previstos en la Ley Orgánica 3/2018 de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales.

**KONTUAN IZANDA** aipatutako araudia bat datorrela Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzarekin.

**CONSIDERANDO** que la mencionada normativa está de acuerdo con lo preceptuado en la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Durango.

**KONTUAN IZANDA** aipatutako araudia bat datorrela azaroaren 17ko 38/2003 Dirulaguntzen Lege Orokorrak ezartzen duenarekin.

**CONSIDERANDO** que la mencionada normativa está de acuerdo con lo preceptuado en la Ley 38/2003, de 17 de Noviembre, General del Subvenciones.

Aurrekontua betearazteko udal araudiko 30.4.C) eta 33 oinarriek ezartzen dutenarekin bat etorriz.

De acuerdo con lo preceptuado en las Bases 30.4.c), y 33 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuen 10/2003 Foru Aginduak ezartzen duenarekin bat etorriz, zeinaren bidez, eskumenak erregulatzen baitira gastu-fase ezberdinei dagokienez.

De acuerdo con lo indicado en el artículo 41 de la Norma Foral 10/2003 Presupuestaria de Entidades locales del Territorio Histórico de Bizkaia, por el que se regula la competencias en las diferentes fases del gasto.



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 13523520161411043460
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**

DURANGO
Udala • Ayuntamiento

Ikusirik badela aurrekonturik aipatutako dirulaguntza-programa aurrera eramateko, eta aipatutako 10/2003 Foru Aginduaren IV idazpuruak zehaztu duen kontu-hartzailetzak egin beharreko kontrola egin ostean.

Existiendo consignación presupuestaria para llevar adelante el programa de subvenciones descrito y habiéndose realizado el preceptivo control interventor descrito en el Título IV de la mencionada Norma Foral 10/2003.

**ERABAKI DUT**

1. Deialdiko oinarriak onartzea 2020ko abenduaren 30era arteko atzeraerginezko ondoriekin.

2. Deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantzaren 8.2 artikuluak eta Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 9.3 artikuluak ezartzen dutenarekin bat etorriz.

3. Gastua onartzea A fasean, 10/2003 Foru Aginduaren 41.1 artikuluak eta aurrekontua betearazteko udal araudiaren 28. oinarriak ezartzen dutenaren babesean eta, beti ere, aintzat hartuta dirulaguntza programaren zenbatekoa eta aurrekontu-partida.

**HE RESUELTO**

1. Aprobar las Bases de la Convocatoria con efectos retroactivos a 30 de diciembre de 2020.

2. Ordenar la publicación de la misma en el Boletín Oficial de Bizkaia, de acuerdo con lo indicado en los artículos 8.2 de la Ordenanza Reguladora de Subvenciones y Ayudas del Ayuntamiento de Durango y 9.3 de la Ley 38/2003 de la Ley General de Subvenciones.

3. Autorizar el gasto en fase A al amparo de lo indicado en el artículo 41.1 de la Norma Foral 10/2003 y en la Base 28 de la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria de este Ayuntamiento, por el importe y en la partida que se indica en el texto del programa de subvención.

Alkateorde delegatuak agindu eta izenpetzen du, eta nik, Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek, egiaztatu egiten dut.

Lo manda y firma el Teniente de Alcalde delegado, de todo lo cual yo, Secretaria General de la Corporación, doy fe.

Aritz Bravo Zubillaga
3. alkateordea - 3º Teniente Alcalde

Maria Teresa Oleaga Larrinaga
Idazkaria - Secretaria



Documento firmado electrónicamente (RD 167/2009), autenticado y verificable mediante el CSV: 1352352016141104346O
**CSVak legeztatu eta egiaztatzen duen agiria, elektronikoki sinatua**